

Ausolan.

CAUCE

Jokabide etikoaren Ausolan kodea

Data: 2025.12.09

Ausolan.

Edukia

1. Sarrera	3
2. CAUCE: Jokabide etikoaren AUSOLAN kodea	4
Edukia	4
Irismena	4
3. GUZTION eskuetan dago, ZURE eskuetan dago	4
a) Zure banakako konpromisoa: ezagutu eta jardutea	5
b) Etsenpluaren bidez zuzentzeko erantzukizuna	5
c) Gure erantzukizun kolektiboa: gure proiektua babestea.....	5
d) Kodea ez betetzearen ondorioak.....	6
4. Jokabide etikoaren gida	6
Oinarrizko jokabidea	6
Gure erantzukizun-markoa: nazioarteko hitzarmena eta GJH.....	6
AUSOLANekiko jokabide zintzoa eta leiala	7
PERTSONEN arteko jokabidea, pertsonekin.....	9
BEZEROEKIN lotutako jokabidea	11
HORNITZAILE, KONTRATISTA, BAZKIDE KOMERTZIAL ETA KANPOKO BESTE KOLABORATZAILE BATZUEKIKO jokabidea	12
Gure jokabidea LEHIArekin eta merkatuarekin lotuta	13
ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin lotutako jokabidea.....	14
Integritate finantzario eta kontablearen gaineko erantzukizuna.....	14
GIZARTEArekiko eta PLANETArekiko konpromisoa	15
5. Komunikazioa eta CAUCEren hedapena	15
6. Parte-hartze aktiboa eta bermeekin	16
7. CAUCE betetzen dela bermatzeko antolaketa	18
8. Indarraldia eta eguneratzea	19

Ausolan.

1. Sarrera

AUSOLANen, otordu- eta garbiketa-zerbitzuetatik harago doan proiektu sozioenpresarial bat partekatzen dugu. Gu guztion helburua gure izateko eta jarduteko moduan islatzen da, bai erakundean bertan, baita bezeroekiko, hornitzaileekiko eta gizartearekiko dugun harremanean ere.

Jokabide Etikoko AUSOLAN Kode hau, gure CAUCE, da gure balioak jokabide zehatz bihurtzen dituen gida. Ez da araudi soil bat bakarrik, kudeaketa etiko, oso eta arduratsuarekin daukagun konpromiso kolektiboaren adierazle ere bada. Hura betetzeak definitzen eta babesten gaitu eta ematen dugun konfiantzaren oinarri da.

Hura ezagutu eta aplikatzeko gonbita egiten dizugu eta, zalantzarik baduzu, zure arduradunari edo hura betearazteko erantzukizuna duen pertsonari galdetzekoa.

Gure ikuspegia: inspiratzen gaituen gogoia

AUSOLAN indartsu eta konprometitua izatea da gure inspirazio-iturria, gure ondarea zaintzen duena emaitzen bitartez. Emaitza horiek etorkizun hobea bermatzen dute eta gizartearen ongizateari laguntzen diote.

Gure misioa: gure eguneroko konpromisoa

Gure bezeroei balioa ematen diegu, profesionalak eta gertukoak izatearen eta hitza betetzearen bidez konfiantza sortuz. Izateko eta egiteko modu horrek harreman iraunkorrak sortzen ditu balio kooperatiboak inspirazio-iturri dituen proiektu sozioenpresarial bati esker.

Gure balioak: gure jokabidearen oinarri

Gure balioak gure izaera eta jardunbidea definitzen duten hiru euskarritan taldekatzen dira. Balio horien arabera bizitzea AUSOLAN osatzen dugun kide bakoitzaren ardura da.

- ✓ **Arima:** #Lankidetzeta #Pertsonak #Helburu-Partekatuak #Talde-Lana

Arima kooperatiboa eta gizatiarra gara. Egiten dugun guztian inplikatzeko gara, pertsonak axola zaizkigulako. Bai AUSOLANen barruan, bai bezeroekin, lan egiteko, lankidetzan aritzeko eta enpatizatzekeo gaitasuna dugu. Horra hor gure arrakastaren gakoa.

“Lankidetzeta gure indarrak biderkatzen dituen palanka ahaltzua da”. M. Arizmendiarieta

- ✓ **Hitza:** #Zintzotasuna #Konpromisoa #Profesionaltasuna #Gertutasuna

Ausolan.

Hitzekoak gara eta hitza betetzekoak. Eskaintzen dugun zerbitzua kalitatezkoa eta gertukoa da eta, horri esker, konfiantzan oinarritutako harreman iraunkorrak eraiki ditzakegu. Profesionaltasunez eta inplikazioz egiten diogu aurre egun bakoitzari.

“Leialtasuna da konfiantzaren oinarria”.

✓ **Ekintza:** #Ekimena #Eraginkortasuna #Malgutasuna #Berrikuntza

Ebazten dugu, konpontzen dugu eta ekiten diogu. Ekintzaileak gara eta soluzio berritzaileak eskaintzen ditugu egunerokoan. Bezeroen erronkak gure gain hartzen ditugu eta malgutasunez lan egiten dugu haien beharretara aise egokitzeko.

"Ekimena inork eskatu gabe egokia de hura egitea da".

Printzipio horiek kode honen atal guztietan nabari daitezke, eta haiek egunerokotasunean ekintza zehatz bihurtzen ditugulako frogara dira.

2. CAUCE: Jokabide etikoaren AUSOLAN kodea

Edukia

Kodea gure jardunbidearen gida praktikoa da. Bertan, **Arima, hitza eta ekintza** balioak eguneroko jokabide bihurtzen dituzten printzipioak eta arauak jasotzen dira.

Helburu bikoitza du: alde batetik, gure ekintzak inspiratu eta gidatzea, betiere definitzen gaituen integritatearen arabera jarduten dugula ziurtatzeko. Bestetik, funtsezko tresna da gure pertsonak, gure proiektua edo gure ospea kaltetu dezaketen ezohiko jokabideak saihestu eta hautemateko eta haien gaineko neurriak hartzeko.

Irismena

Kode hau nahitaez bete behar dute Kontseilu Errektoreko kideek, zuzendariak eta **AUSOLANeko langile guztiak**, euren hierarkia-maila, kontratu mota, kokapena edo jarduten duen Taldeari lotutako sozietatea edozein izanik ere.

Era berean, AUSOLANek kode hori sustatuko du bere hornitzaile, bazkide, enpresa kolaboratzaile eta langileen artean eta hemen adierazitakoen jokabide etikoaren estandar antzekoak izango dituztela esperoko du.

3. GUZTION eskuetan dago, ZURE eskuetan dago

Ausolan.

AUSOLANen arrakasta eta gure ospearen sendotasuna gutako bakoitzaren ekintzen esku dago. **Kode hau betetzea eta betearaztea erantzukizun indibidual eta kolektiboa da** eta AUSOLANeko kide guztiok gure gain hartzen dugu ardura hori, salbuespenik gabe. AUSOLAN osatzen dugun kide bakoitzak ziurtatu behar du kodea betetzen dela.

a) Zure banakako konpromisoa: ezagutu eta jardutea

AUSOLANeko kide bakoitzak funtsezko erantzukizuna dauka kode honetako jarraibideak ezagutu eta ulertzeko eta haiek eguneroko jardunean erabiltzeko. Konpromiso hori zure "**Hitza**"-ren eta profesionaltasunaren adierazle da.

Banako erantzukizun horri jarraikiz:

- Ez dago beste norbaiti kodea ez betearazteko eskatzeko baimena daukan inor, edozein postutan egonik ere.
- Inork ezin du CAUCEren kontrako jokabiderik zuritu nagusiren baten agindupean egotea edo kodea ez ezagutzea argudiatuta. Zure integritatea eta irizpidea funtsezkoak dira.

b) Etsenpluaren bidez zuzentzeko erantzukizuna

Pertsonen kargu direnek, bai erdi-mailako buruek, bai goi-mailako zuzendaritzak, erreferentzia izateko erantzukizun osagarria daukate. Horrek esan nahi du, kodea betetzeaz gain, honako hauek egin behar dituztela:

- **Etsenpluaren bidez zuzendu**, jokabide etiko ezin hobea erakutsiz.
- Taldekideek kodea ezagutu eta ulertzen dutela **sustatu**.
- **Konfiantzazko giroa** sortu, zalantzei edo dilema etikoei buruz argi hitz egin ahal dadin, bereizten gaituen "**Arima**"-rekin jardunez.

c) Gure erantzukizun kolektiboa: gure proiektua babestea

Izaera kooperatiboa duen enpresa-proiektuaren baitan, **proiektuaren ongizatea helburu partekatua da**. Horregatik, guztiona da erakundea ezohiko jarrerren aurrean babesteko erantzukizuna. Kode honen mende dauden pertsonak hura urratzen dela hautematen badute, espero da urratze horren berri emango dutela, horretarako ezarritako kanalak erabilita, baita hirugarrenak (esaterako, hartzailleak edo kolaboratzaileak) tartean sartzen baditu ere. Hala jardutea gure balioak aktiboki bermatzea izatea da.

Ausolan.

d) Kodea ez betetzearen ondorioak

Konpromiso hau gure harreman profesionalaren zati garrantzitsua da. Hori dela eta, **kode honetako jarraibideak berariaz ez betetzea eta hura ez betetzeko agindua ematea** laneko falta gisa hartuko dira eta **legedian eta barne-araudian ezarritako diziplinazko neurriak aplikatzea ekarriko du**, urratzea egin duen pertsonaren hierarkia-maila edozein izanik ere.

4. Jokabide etikoaren gida

AUSOLANeko pertsona guztiek jarraian jasotzen diren **jokabide-printzipioen** arabera egin eta bete behar dituzte euren erantzukizunak eta funtzioak.

Oinarrizko jokabidea

Indarreko legediaren, gure barne-araudien eta onuste-, integritate- eta errespetu-printzipioen arabera jarduten dugu beti eta, hala badagokio, dagozkion agintaritzekin elkarlanean jarduten dugu. Hori da "**Hitzekoa**" izatearen abiapuntua".

Gure erantzukizun-markoa: nazioarteko hitzarmena eta GJH

Gure konpromiso etikoa gure hormetatik harago doa eta nazioarteko hitzarmenekin lerrotuta dago; besteak beste, garapen jasangarriarekin eta giza eskubideekin lotutakoekin. Horregatik, AUSOLAN bat dator **Nazio Batuen Paktu Globaleko Hamar Printzipioekin** eta **Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)** erabiltzen ditu inpaktu positiboa eragiteko gida gisa.

Konpromiso hori gure politikak inspiratzen eta ardazten dituzten lau eremu gakoetan adierazten da:

1. **Giza eskubideak:** Oinarrizko giza eskubideak babestearen alde gaude eta hori egitea errespetatzen dugu.
2. **Laneko arauak:** Elkartzeko eskubidea eta lan behartu eta diskriminazio era oro deuseztatzea defendatzen dugu.
3. **Jasangarritasuna:** ingurunearekiko lagungarri den ikuspegi prebentiboa daukagu eta harekiko erantzukizun handiagoa sustatzen dugu.
4. **Ustelkeria:** era guztietako ustelkeriaren aurka egiten dugu lan, estortsioa eta eroskeria barne.

AUSOLANekiko jokabide zintzoa eta leiala

Gure proiektu kolektiboarekiko leialtasuna da gure "Hitza" osatzen duten zintzotasuna eta konpromisoaren abiapuntu. Konpromiso hori frogatzeko, **jokabide zintzo eta leiala** mantentzen dugu une oro eta aktiboki babesten ditugu gure proiektu kolektiboaren **interesak eta ospea**. Funtsezko printzipio horrek **gure proiektu enpresarialarekiko errespetua eta hura osatzen duten pertsonak** ditu abiapuntu eta honako jarraibide hauetan zehazten da:

➤ Gure irudiaren eta ospearen babesa:

AUSOLANen ospea balio handiko aktiboa da, guztion artean eraiki eta babestu beharrekoa. Horregatik, hura zaintzeko ahalegin guztiak egin behar ditugu gure jarduera profesionaletan, gure harremanak zintzotasunean eta integritatean oinarrituta.

Ospea zaintzeko behar hori arlo guztietara hedatzen da, arlo digitalera barne. Sare sozialetan edo bestelako foroetan enpresari, lankideei edo bezeroei buruzko mespretxuzko iruzkinak eta iruzkin faltsuak egiteak edo haien izena zikintzeak larriki kaltetzen du gure irudia eta gure balioen aurka doa.

➤ Interesen eta leialtasunaren arteko gatazka jardueran:

Gure interes pertsonalek (edo gure ingurukoenek) gure zentzutasun profesionalari eragin diezaiekeenean sor daitezke interes-gatazkak. AUSOLANek langileek beste jarduera sozial edo enpresarialetan parte hartzea errespetatzen du, baldin eta legezkoak badira eta erakundearen interesekin gatazkan edo lehian ez badaude.

Hori bermatzeko, nahitaezkoa da **jarduera horiekin hasi aurretik** haiek egiteko asmoaren berri ematea, horretarako ezarritako kanalen bidez, gatazkarik dagoen ebaluatzeko. Era berean, leialtasunak esan nahi du ezingo direla norberaren edo hirugarrenen mesedetan erabili AUSOLANeko posizioari esker ezagutzen diren **negozio-aukerak**. Besteak beste, espresuki debekatuta dago **AUSOLANen markak** norberaren konturako eragiketetan erabiltzea.

➤ Integritatea informazioaren kudeaketan:

Gure ospea konfiantzan oinarritzen da eta hori informazioa profesionaltasun handienaz kudeatuz sortzen dugu. Konpromiso hori hiru eginbeharretan itxuratzen da:

▪ **Datu pertsonalen babesa:**

Pertsonak (langileek, bezeroek, hornitzaileek, etab.) euren datuak gurekin partekatzerakoan gudan jartzen duten konfiantza oso erantzukizun handia da. Datuak babesteko araudia zorrozki betetzeko konpromisoa daukagu. Hala, legezko eta baimendutako helburuetarako soilik erabiliko dugu bildutako informazio pertsonala. **Datu pertsonalak atzitzea edo haiek baimenik gabeko pertsonen ematea edo onartzen ez diren helburuetarako erabiltzea falta**

Ausolan.

oso larria da eta guztiz debekatuta dago. Arau-urratzeak ez dakar gure balioak urratzea soilik; lege-ondorio larriak (erantzukizun penalak barne) ere ekar ditzake, bai enpresarentzat, bai arau-hauslearentzat.

- **Erabilera arduratsu eta konfidentziala:**

Erabiltzen dugun informazioa (AUSOLANena, gure bezeroena, hornitzaileena edo langileena) funtsezko aktiboa da. Hura modu eraginkorrean erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu eta soilik gure funtzioak betetzeko. Halaber, **konfidentzialtasun** osoa mantenduko dugu beti. Leialtasun-eginbehar hori mantendu egiten da, baita enpresarekin daukagun harremana amaitu ondoren ere.

- **Egiazko komunikazioa:**

"**Hitzekoa**" izateak zintzoa izatea esan nahi du. Informazioa modu argi eta egiazkoan transmititzen dugu eta ez dugu ezein kasutan zuzenak edo zehatzak ez diren daturik berariaz ematen.

- **Berrikuntza eta jakintza intelektualaren babesa:**

"**Ekintza**"-k etengabe berritzera bultzatzen gaitu. Gure jardueraren esparruan sortutako jakintza, hobekuntzak eta sorkuntzak (esaterako, markak, patenteak edo prozesuak) AUSOLANen jabetza eskusibokoak diren aktibo estrategikoak dira.

Printzipio honek konpromiso bikoitza eskatzen du:

- **Gure jakintzarekiko leialtasuna:** Gure jabetza intelektual eta industrialaren haren erabilera bidegabearen aurrean aktiboki babesteko betebeharrak daukagu eta enpresari negoziarako asmakuntza edo hobekuntza garrantzitsu ororen berri ematekoa, gure barne-politikari jarraikiz.
- **Enpresaz kanpoko ezagutzarekiko errespetua:** Gure integritatea besteen lana eta jabetza errespetatuz ere adierazten dugu. Berariaz debekatuta dago softwarea legez kanpo erabiltzea, babestutako edukia kopiatzea, plagioa egitea edo hirugarrenen jabetza intelektualak kaltetu dezakeen edozein ekintza egitea.

- **Aktiboen eta baliabideen erabilera:**

AUSOLANen baliabideak modu eraginkor eta arduratsuan erabiltzen ditugu eta gure jarduera profesionala gauzatzeko soilik. "**Ekintza**" izateak eraginkorra izatea eta erakundeak gure esku jartzen dituen bitartekoak ongi zaintzea ere esan nahi du.

Aktibo hauek, instalazioetatik hasi eta sistema informatikoetara bitarte, modu arduratsu eta profesionalean babestu eta erabili behar ditugun lan-tresnak dira, honako printzipio hauen arabera:

Ausolan.

- **Aktiboen zaintza:** Ekipoak eta instalazioak zaintzen ditugu, haiek hondatzea, galtzea edo oker erabiltzea saihesteko. Enpresaren ondasunez jabetzea edo haiek berariaz oker erabiltzea euren buruari zor diogun leialtasunaren aurkako falta larritzat jotzen dira.
 - **Baliabide teknologikoen (IT eta komunikazioak) erabilera profesionala:** Enpresak ematen dizkigun ekipoak, sistemak eta sareak lanerako soilik erabil ditzakegu, lege aplikagarriak besterik xedatu ezean. Debeztatuta dago baimendu gabeko softwarea instalatzea edo gure sistemen segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein ekintza egitea. Bitarteko horien erabilera xehatua enpresaren **IT politikan** arautuko da.
 - **Adimen Artifizialaren (AA) erabilera arduratsua:** AAren erabilera sustatzen dugu gure "**Ekintza**" eta "**Berrikuntza**" sustatzeko tresna gisa, betiere esparru etiko seguru batetik abiatuta. Haren erabilera hiru printzipio ez-negoziagarritan ardazten da:
 1. **Informazioaren babesa:** konfidentzialtasuna da urrezko araua. **Erabat debeztatuta dago kontuzko informazioa (bezeroena, enpresarena edo langileena) onartuta ez dauden AAKo tresna publikoetan sartzea.**
 2. **Giza ikuskapena:** AA laguntzeko tresna bat da, ez gure zuhurtasunaren ordezko. Ematen dituen emaitzak kritikotasunez berrikusi behar ditugu beti haiek erabili aurretik.
 3. **Gardentasuna:** AAren erabilerari buruz gardentasunez jardungo dugu hirugarrenekin lan egiten dugunean.
- **Opariak, arreta berezia eta ustelkeriaren aurkako borroka:** Ez dugu kortesia-arauetatik harago doan opari edo arreta berezirik eta negozioaren inguruko erabakietan eragiteko saiakeratzat jo daitekeenik egiten edo onartzen. Gure "Hitza" zintzotasunean oinarritzen da.

PERTSONEN arteko jokabidea, pertsonekin

"Arima kooperatibo eta gizatiarra" gara eta pertsonak dira gure aktibo nagusia. Horregatik, gure gain hartzen ditugu giza eskubideen printzipioak eta Nazioarteko Hitzarmeneko laneko arauak.

Konpromiso hau **errespetuan, ekitatean eta, batez ere, elkarren zaintzan oinarritutako lan-ingurune** batean egikaritzen da, honako printzipio hauen bidez:

Ausolan.

- **Aukera-berdintasuna eta errespetua lantokian:**

Laneko ingurune inklusiboa sustatzen dugu, non pertsona guztiak euren merituen eta gaitasunen arabera soilik ebaluatzen diren. Halaber, pertsonen kudeaketari lotutako erabakietan bidezko tratua ematen dugula bermatzen dugu; besteak beste, hautapenean, ordainketan eta promozioan.

Sexuan, arrazan, ideologian, erlijioan, sexu-orientazioan edo beste edozein inguruabarretan oinarritutako diskriminazio edo jazarpen oro arbuiatzen dugu. **Zero tolerantziako** politika daukagu agintekeria edo beldurrarazteko giroa sortzen duen jokabide ororekiko. **Konfiantza eta lankidetzako** giro bat sustatu nahi dugu, non "Talde-lana" eta elkarrekiko errespetua oinarritzkoak baitiren.

- **Kalitatezko enpleguarekiko konpromisoa:**

Laneko araudia zorrozki betetzeaz gain, **enpleguaren arloan jardunbide hobek** sustatzeko konpromisoa ere badaukagu. Erantzukizun partekatua da: erakundeak bidezko lan-esparru bat ematen du eta gutako bakoitzak edozein motatako irregulartasunak prebenitzen eta hautematen laguntzen du, lan-ingurunea guztiontzat duina eta bidezkoa dela bermatzeko.

- **Segurtasuna eta osasuna, konpromiso negoziatzina:**

Pertsona orok ingurune seguru eta osasuntsu batean lan egitea da gure lehentasuna. Horregatik, prebentzio aktiboko kultura sustatzen dugu. Horrek esan nahi du:

- **AUSOLANek konpromisoa hartzen duela** beharrezko prestakuntza, informazioa eta babes-ekipamenduak emateko.
- **Pertsona bakoitzak konpromisoa hartzen duela** segurtasun-neurriak ezagutu eta betetzeko, baliabideak zuzen erabiltzeko eta bere segurtasuna zein bere lankideena zaintzeko.

Segurtasuna ez da arau bat bakarrik; gure "**Arima**"-ren eta elkarren zaintzaren adierazpena ere bada. Segurtasuna bermatzeko, erabat debekatuta dago **alkohola, drogak eta eginbehar profesionalak betetzeari eragin diezaioketen bestelako sustantziak** kontsumitzea edo haien eraginpean egotea. Guztion segurtasuna salbuespenik gabeko erantzukizuna da.

- **Garapen eta ebaluazio profesionala:**

Gure pertsonen garapen profesionala sustatzen dugu trebakuntza eta ebaluazio-prozesu bidezko eta gardenen bidez. Haietan, langileak ere parte hartzen du bere helburuak definitzen. Elkarrekiko konpromisoan sinesten dugu: erakundeak tresnak eskaintzen ditu eta profesional bakoitzak bere hazkuntzan inplikatzeko da.

Ausolan.

- **Komunikazio gardena eta helburu partekatuak:**

Gardentasunean eta helburu partekatuen ahalmenean sinesten dugu. Horregatik, konpromisoa hartzen dugu aldian-aldian enpresaren martxaren eta helburuen berri emateko, bakoitzak bere ekarpenak duen balioa uler dezan eta gure proiektu komunaren osagai aktiboa dela senti dezan.

- **Kontziliazioa eta ongizate pertsonala:**

Pertsonen ongizatea lan-ingurunetik harago doala ulertzen dugu. Gure "**Arima**" kooperatiboaren baitan, aktiboki sustatzen ditugu lana, familia eta bizitza pertsonalaren arteko oreka osasuntsua lortzen laguntzeko kontziliazio-politikak.

Printzipio nagusi horiek **Pertsonen berariazko politiken** bidez garatzen eta egikaritzen dira. Besteak beste, Berdintasun-planaren, Jazarpenaren aurkako protokoloaren eta talentua hautatzeko eta garatzeko politiken bidez.

BEZEROEKIN lotutako jokabidea

Gure misioa "**konfiantza sortuz gure bezeroei balioa ematea da**". Bezeroak proiektu komun bateko kide gisa ikusten ditugu. Gure harremanak "**Hitza**" (gertutasuna, profesionaltasuna, zintzotasuna) eta "**Ekintza**" (soluzio eraginkor eta berritzaileak eskaintzea) ditu oinarri. Konpromiso hau honako printzipio hauetan gauzatzen da:

- **Integritatea harreman komertzialetan:**

Konfiantza gure eskaintzaren kalitatearekin lortzen da, ez etikoak ez diren jardunbideekin. Horregatik, **erabat debekatuta dago erabaki komertzialetan eragina izan dezaketen mesede edo opariak eman edo onartzea**. Kontratuak gure proposamenak baliotsuak direlako soilik eman behar dira. Eskudiruzko dohaintzak debekatuta daude egoera orotan.

Ematen ditugun opari edo arreta bereziek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Tokiko kortesia eta ohiturak errespetatu behar dituzte.
- Balio sinbolikoa eta esporadikoa izan behar dute.
- Gardenak izan behar dira eta ezin dira lehentasunezko tratua jasotzeko asmoarekin eman.
- Legea eta gure bezeroaren politikak bete behar dituzte.

- **Elikagaien segurtasuna: gure lehentasun nagusi:**

Gure produktuak kontsumitzen dituzten pertsonen segurtasuna eta osasuna gure jardueraren oinarri ez-negoziagarria da. **Segurtasun higieniko-sanitarioarekiko erabateko konpromisoa** sustatzen dugu erakunde osoan. Horretarako, honako neurri hauek aplikatzen ditugu:

- Lizentzia eta baimen guztiak zorrozki betetzea.

Ausolan.

- Autokontrol-planak (AKKPA) ezarri eta mantentzea.
- Gure taldeak etengabe trebatzea.

AUSOLANeko pertsona bakoitza segurtasunaren erantzukide da eta zehatz-mehatz jarraitu behar ditu elikagaiak maneiatzeko, kontserbatzeko, etiketatzeko eta elaboratzeko jarraibide guztiak.

- **Pertsona zaugarrien babesa:**

Jakin badakigu adin txikikoak, adinekoak eta zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak dauden inguruneetan lan egiteak erantzukizun berezia dakarrela berekin. Ondorioz, zero tolerantziako politika daukagu haien kontrako tratu txar, jazarpen edo abusuarekiko.

Profesionalaren aldeko edozein motatako tratu desegokiak hura bere funtzioetatik berehala baztertzea eta gure babes-protokoloa aktibatzea ekarriko du. Protokoloak zentroko zuzendaritzari, familiei eta, hala badagokio, segurtasuneko indar eta kidegoei jakinaraztea barne hartzen du, besteak beste. Prebentzio-neurri gisa, izaera sexualeko delituen ziurtagiri negatiboa izatea eskatzen diegu adingabeekin harremanetan egon ohi diren profesional guztiei.

- **Balioa eta konfiantza ematea:**

Harreman iraunkorrak sortu nahi ditugu eta, horretarako, bazkide zintzo, konfiantzazko eta "**Hitzeko**" gisa jarduten dugu beti. Halaber, komunikazio egiazko, zehatz eta zintzoan edukitzean, kontratu argiak idaztean eta gure bezeroen informazioaren konfidentzialtasunarekiko konpromisoan ere islatzen da profesionaltasun hori, zeina AUSOLANekiko jokabide zintzo gisa eskatzen baitugun.

HORNITZAILE, KONTRATISTA, BAZKIDE KOMERTZIAL ETA KANPOKO BESTE KOLABORATZAILE BATZUEKIKO jokabidea

Gure hornitzaile eta bazkideak gure balio-katearen luzapena dira eta funtsezko papera jokatzen dute gure Misioa betetzeko gaitasunean. Horregatik, **profesionaltasunean, elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremanak sortu nahi ditugu**, honako printzipio hauen bidez:

- **Hautapen objektiboa eta zintzoa:**

Gure bazkideak **homologazio-prozesu** objektibo, inpartzial eta gardenen bidez aukeratu ditugu. Zerbitzuen kalitateaz eta prezioaz gain, euren kaudimena, jasagarritasuna eta, batez ere, hain konpromiso etikoa ebaluatzen ditugu. Gure hornitzaileen informazio komertziala dagokion konfidentzialtasunarekin erabiliko dugu beti.

Ausolan.

- **Gure balioekiko konpromisoa:**

Gure bazkideek integritatearekiko dugun konpromisoa partekatzen dugula espero dugu. Horregatik, gure **Hornitzaileen Jokabide Kodean** jasotako printzipioak ezagutu eta betetzea eskatzen diegu. Baldintza hori nahitaezkoa da AUSOLANekin harreman komertziala izaten hasteko eta hura mantentzeko.

- **Egiaztapena eta ondorioa:**

Erreserbatuta daukagu estandar etiko horiek betetzen direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen ditugun **egiaztapenak** egiteko eskubidea. Hornitzaileak urratze larriren bat egiten badu, gure harreman komertziala amaitzea ekar dezake. Izan ere, ezin gara gure oinarritzko printzipioak partekatzen ez dituzten bazkideekin elkartu.

- **Integritatea interakzio guztietan:**

Zalantzak ekiditeko, opariei, arreta bereziei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruz kode honetan adierazitako jarraibideak zorrotasun berarekin edo are gehiagorekin aplikatuko zaizkie hornitzaile eta bazkideekin ditugun interakzioei.

Hori dela eta, **gure langileek erabat debekatuta daukate hornitzaileei negozio-erabakietan eragiteko saiakeratzat jo daitekeen edonolako opari, mesede edo konpentsazio zuzenean edo zeharka eskatzea edo haiek onartzea.**

Gure "**Hitza**" eta gure integritatea ez dira negoziagarriak. Hornitzaileak eskaintzen diguten balioaren arabera aukeratzen ditugu, ez ematen diguten arreta bereziagatik.

Gure jokabidea LEHIAREKIN eta MERKATUAREKIN lotuta

Bikaintasunaren motorra lehia zintzoa dela uste dugu. Gure "Ekintza" gure zerbitzuen kalitatearen bidez irabazi nahi dugu merkatuaren konfiantza, ez jardunbide engainakorren, iruzurrezkoen edo lehiakortasun librea murrizten dutenen bidez.

- **Lehia zintzoa:**

Hertsiki debekatzen dugu lehiakideekin prezioak finkatzeko, merkatuak banatzeko edo ekoizpena mugatzeko hitzarmenak edo itunak egitea. Zintzotasunez eta errespetuz lehiatzen dugu. Auditoretza eta Kontrol Batzordeak alde aurretik egiaztatu beharko ditu lehiakortasun libreari edo prezioen eraketari eragin diezaiekeen erakunde edo hitzarmenetako parte-hartzeak.

- **Merkatuari buruzko informazioa:**

Ausolan.

Bide legal eta etikoak erabiltzen ditugu beti lehiakideei eta merkatuari buruzko informazioa lortzeko. Bidegabeki eskuratutako informazioa eta sekretu komertzialak urratzen dituena ukatzen eta salatzen dugu.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin lotutako jokabidea

Administrazio eta erakunde publikoekin ditugun interakzioak errespetu instituzionalean, legezketasunean eta erabateko gardentasunean oinarritzen dira.

- **Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka:**

Ustelkeriaren aurrean **zero tolerantziako** politika berresten dugu. Erabat debekatuta dago funtzionarioei edo agintari publikoei zuzeneko edo zeharkako ordainketa edo abantaila bidegabeak eman, eskaini edo hitzematea AUSOLANen edo norberarentzat onurak lortzeko. Halaber, barne hartzen dira haiek ezkutatzeko erabilitako tresnak, influentzia-trafikoa eta prozesuak errazteko ordainketak.

- **Funts publikoen kudeaketa:**

Dirulaguntza publikoak ahalik eta arreta handienaz kudeatzen ditugu, haiek emateko baldintza guztiak zorrozki betez eta haiek emandako helburuetarako soilik erabiliz.

- **Neutraltasun politikoa:**

AUSOLANek ez dio ezein alderdi politikori dohaintzarik egiten eta ez du bere neutraltasuna arriskuan jar dezakeen ezein jardueratan parte hartzen. Gure langileek norberaren izenean jardun behar dute beti elkarlanean erakundea politikoeekin eta ezin dute inola ere enpresa tartean sartu.

INTEGRITATE FINANTZARIO ETA KONTABLEAREN gaineko erantzukizuna

Gardentasuna eta legezketasuna dira gure kide, bezero eta bazkideek gugan jartzen duten konfiantzaren oinarri. Zorroztasunak zuzentzen du gure kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa.

- **Egiazko kontabilitate-erregistroak:**

Gure eragiketa ekonomikoak **argi eta zehatz** adierazten dira gure erregistroetan. Gure urteroko kontuak gure **errealitate finantzario eta ondarezkoaren** isla zehatza dira. Ezein profesionalak ezin du informazio hori ezkutatu, faltsutu edo itxuraldatu.

Ausolan.

AUSOLANek konpromisoa hartzen du **informazio finantzarioaren sorrera kontrolatzeko barneko kontrol-sistema egoki bat ezartzeko** eta aldian-aldian haren eraginkortasuna egiaztatzen dela bermatzeko. Kontabilitate-erregistroak une oro egongo dira barneko eta kanpoko auditoreen eskura.

- **Kapitalaren zuriketaren prebentzioa:** Adi gaude, AUSOLAN kapital-zuriketarako erabiltzea saihesteko. Hori dela eta, saihestu egiten ditugu kontratuetan identifikatuta ez dauden hirugarrenen bidez egindako eskudiruzko ezohiko ordainketak edo negozio-logika argi eta gardenik gabeko eragiketak. Era berean, saihestu egiten dugu **paradisua fiskaletako** pertsonen, enpresei, entitateei eta kontuei eta **amaierako kidea, jabea edo onuraduna identifikatu ezin daitekeen entitateei** ordainketak egitea.
- **Erantzukizun fiskala:** Zerga-betebehar guztiak betetzen ditugu jarduten dugun lurraldeetan. Ogasun publikoak saihesteko edo haiei iruzur egiteko helburua duen ekintza oro debekatu dugu.

GIZARTEAREKIKO eta PLANETAREKIKO konpromisoa

Gure ikuspegiak eta GJHrekiko eta Nazioarteko Hitzarmenarekiko konpromisoak gizartearen ongizatearekin lotzen gaituzte. Hori ez da adierazpen bat bakarrik; gure eguneroko **"Ekintza"** zuzentzeko gida ere bada.

- **Inguruneari dagokionez:**

Ingurunean dugun eragina ahalik eta gehien murrizteko konpromisoa kontuan hartuta jarduten dugu, legedia betez eta baliabideen erabilera eraginkorra eta hondakinen kudeaketa arduratsua sustatuz.

- **Komunitatearekiko lotura:**

Jarduten dugun komunitateen garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzen dugu, kalitatezko lanpostuak sortuz eta tokiko eragileekin elkarlanean jardunez. Gure ekintza sozialaren zati bat AUSOLAN Fundazioaren bitartez bideratzen dugu.

5. Komunikazioa eta CAUCEren hedapena

Gure balioak eta printzipioak egikaritu daitezzen, ez da nahikoa haiek definitzearekin. Erakundeko txoko guztietara hel daitezzen eta gure eguneroko **"Ekintza"** gida dezaten ziurtatu behar dugu. Horrek hiru mailatako konpromisoa eskatzen du:

a) AUSOLANen konpromisoa: hedapena eta prestakuntza

Ausolan.

AUSOLANek konpromisoa hartzen du aktiboki kode hau tresna bizia izan eta denontzat erabilgarri egon dadin. Horretarako:

- Lanpostu bakoitzari dagokion araudia ezagut dadin sustatuko dugu.
- Pertsona bakoitzak CAUCEren kopia bat eskura dezan ziurtatuko dugu, baita gure webgunean eta barneko kanaletan eskuragarri egon dadin ere.
- Etengabeko komunikazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-plan bat garatuko dugu, kodearen printzipioak ulertu eta egunero aplikatu daitezkeen.

b) Zure banakako konpromisoa: ezagutu eta aplikatzea

Kode hau ez da irakurri bakarrik egin behar, bizi ere egin behar da. AUSOLANeko profesional bakoitzak erantzukizun hauek ditu:

- Kodearen printzipioak ezagutu eta ulertzekoa.
- Haiek bere eguneroko lanean eta erabakietan aplikatzekoa.
- Zalantzarik izanez gero, nagusiari edo hura betearazteko funtzioa duen pertsonari laguntza eskatzekoa.
- Compliance-ereduaren kontrol-sistemekin aktiboki kolaboratzekoa.

c) Zuzentzeko erantzukizuna: etsenplu eta laguntzaile izatea

Taldeak kudeatzeko erantzukizuna duten horiek beste paper osagarri eta funtsezko bat ere badute: gure integritatearen kulturaren ordezkari nagusi izatekoa. Honako erantzukizun hau dute:

- Jokabide etikoaren erreferente eta etsenplu izatekoa.
- Bere taldean CAUCE ezagutzen eta aplikatzen dela sustatzekoa.
- Konfiantzazko giro bat sortzekoa zalantzak galdetzeko eta, bereziki, arau-urratze posibleen berri asmo onez ematen duten horien alde egiteko, erreparorik gabe.

6. Parte-hartze aktiboa eta bermeekin

AUSOLANen, uste dugu urratzeak saihesteko modurik honena haiei buruz modu argian hitz egitea dela, eta haien inguruko zalantzak argitzea haiek arazo bihurtu aurretik. Horretarako, barneko zein kanpoko pertsonak gurekin modu seguru eta konfidentzian komunikatzeko sistema bat sortu dugu.

a) Erantzukizun partekatua: galdetu eta informatzea

Ausolan.

Gure "**Arima**" kooperatiboaren eta "**Hitz**" zintzoaren kulturaren baitan, denok daukagu honetarako eskubidea eta erantzukizuna:

- **Kontsultatzekoa:** kode honen aplikazioari buruzko zalantzarik baduzu edo ekintza bat egokia den ez badakizu, galde ezazu. Hobe da galdetzea oker joketzea baino. Hitz egin zure nagusi hierarkikoarekin edo Arau-betetze funtzioarekin.
- **Informatzekoa:** kodea urratu izanaren edo arau-hauste legal edo administratibo larriren baten berri badaukazu, erakundeari jakinarazteko betebeharra duzu. Garaiz hitz egitea da gure proiektu komuna babesteko erarik onena.

b) Zure informazio-kanala

Komunikazioa errazteko, AUSOLANek Arau-betetzearen arduradunak kudeatutako informazio-kanal bat jarri du zure eskura. Kanala erabat konfidentziala da. Jarri harremanetan bitarteko hauek erabilia:

- **Helbide elektronikoa:** cumplimiento@ausolan.com
- **Helbide:** Arau-betetzearen arduradunari, Uribarri Etorbidea 35-37, 20500 Arrasate (Gipuzkoa).
- Telefono-zenbakia: **943 79 46 11. Luzapena: 70270**
- **Aurrez aurreko bilera:** Eskatu aurreko kanalen bidez.
- Era berean, eta kasu orotan, gertakariak **lerro hierarkikoaren, Giza Baliabideen Departamentuaren, Arau-betetzearen arduradunaren eta Auditoretza eta Arau-betetze Batzordearen** bidez sala daitezke. Salatutako gertakari guztiak Arau-betetzearen arduradunari helaraziko zaizkio, haiek izapidetu ditzan.

Sistemaren funtzionamendu xehatua **Komunikazioen Kudeaketa-prozedurak** arautzen du, 2/2023 Legeari jarraikiz.

c) Gure konpromisoa: bermedun prozesua

Kanal hauek erabiltzean seguru senti zaitezten, AUSOLANek printzipio hauekiko konpromisoa du eta haiek bermatzen ditu, ezbairik gabe:

- **Konfidentziasuna:** Zure identitatea eta partekatzen duzun informazioa erabateko konfidentziasunarekin erabiliko ditugu.

Ausolan.

- **Errepresalien debekua:** Uste onez jarduten dutenen aurkako **errepresalien aurrean, zero tolerantziako politika** aplikatzen dugu. Zu babestea da gure lehentasuna.
- **Alderdi ororen eskubideak:** Ikerketetan, errugabetasun-presuntzioa, ohorearekiko errespetua eta inplikaturako pertsona guztien eskubideak errespetatzen direla bermatzen dugu.
- **Erantzun bermatua:** Zure komunikazioa hartu izana adierazteko konpromisoa hartzen dugu, eta legez ezarritako epeen barruan ikerketaren emaitzari buruzko erantzun bat ematekoa.

Berariaz akusazio faltsuak egiteko kanala asmo txarrez erabiltzeak dagozkion diziplina-neurriak hartzea ekar lezake.

7. CAUCE betetzen dela bermatzeko antolaketa

Integritatearekiko konpromisoa errealitate efektiboa dela ziurtatzeko, rolak eta erantzukizunak garbi definituta dauzkan gobernamentu-eredu argi bat ezarri dugu.

- **Kontseilu Errektorea:**

AUSOLANeko gobernu-organo nagusia da, integritatearen kulturaren sustatzaile nagusia eta kode hau onartu eta gainbegiratzearen behin-behineko arduraduna.

- **Auditoretza eta Arau-betetze Batzordea (AAB):**

Kontseilu Errektoreak gure Arau-betetzearen eredia etengabe eta zuzenean ikuskatzeko izendaturako organoa da. Bere eginbehar nagusiak sistemaren eraginkortasuna bermatzea, Informazio-kanalaren kudeaketa gainbegiratzea eta gure programa beti eguneratuta mantentzeko beharrezko hobekuntzak proposatzea dira. **Bere osaera, funtzionamendua eta ahalmenak bere araudian daude xehatuta.**

- **Arau-betetzearen arduraduna:**

AABrekin zuzeneko kontaktua du eta batzorde horren buru da. Arau-betetzearen programa kudeatzeaz eta dinamizatzeaz arduratzen da egunerokoa. Bere erantzukizun nagusiak Informazio-kanalaren kudeaketa, Arau-betetzeari lotuta erakunde osoari aholku ematea, sor daitezkeen ikerketak gainbegiratzea eta gobernu-organoei aldian-aldian sistemaren egoeraren berri ematea dira, besteak beste.

Ereduaren eraginkortasuna bermatzeko, Auditoretza eta Arau-betetze Batzordeak eta Arau-betetzearen arduradunak independentzia, jarduteko autonomia eta enpresako informazio guztirako sarbide osoa izango dute euren eginbeharrak aurrera eramateko. AUSOLANeko pertsona guztiek haietan aktiboki parte hartzeko betebeharra dute.

Ausolan.

Era berean, erakundeak konpromisoa hartzen du Arau-betetzearen funtzioari bere lana modu independente eta eraginkorrean egiteko behar dituen giza bitartekoak eta bitarteko materialak emateko.

8. Indarraldia eta eguneratzea

Jokabide Kode hau Kontseilu Errektoreak hura onartutako datan sartuko da indarrean, hots, **2025eko abenduaren 9an**, eta hura berriro berrikusi arte mantenduko da indarrean. Aldian-aldian berrikusiko da, araudien aldaketetara eta gure erakundearen eta kulturaren garapenera egokitzen dela ziurtatzeko.